

ZARAUTZ / Angel Lertxundiren 'Ihes betea' ren inguruan, solasaldia

Gaur arratsaldeko 18:30ean, Anjel Lertxundiren 'Ihes betea'-ren inguruan solasaldia izango da Sanz Eneako liburutegian, 'Andu' berak hartuko duelarik parte solasaldian. Pasa den astelehenean, urriak 24, Liburutegiaren Eguna ospatu izan den honetan, ekitaldi ezberdinak antolatu dira eta horien artean gaur arratsaldeko literatura solasaldia. Orain lau urte idatzi zuen liburu hau Alemania nazian kokatzen du. Hamazazpi urteko mutila da 'Ihes betea' liburuko protagonista, Werner. Gazte hitlerzalea da bera, gerra aurreko Alemanian. Sekretu handi bat gordetzen diete senideek Wernerri: judua da. Sekretu horrek bizitza aldarazten dio gazteari. Guzti honetaz hitzegingo da gaurko solasaldi irekian.